

SAGARDOETXEA. 2009KO ASTE SANTUA.

EGITARAUA. Sagar muztioaren elaborazioa eta Euskal Herriko gazten dastaketa.

Aste Santuan Sagardoetxeak esperientzia berri bat eskaintzen dizu: sagardoaren eta Euskal Herriko gazten uztartzea. Batetik, museoko sagastian sagar muztioa zeure eskuz egiteko aukera izango duzu, elaborazio prozesu osoa jarraituz: kizkiarekin sagarra jaso, patsa egin, sagarra pisoiekin jo eta eskuzko tolarean zanpatu, muztioa lortzeko. Elaborazio prozesuarekin amaitutakoan, Euskal Herriko gazta ezberdinak dastatzeko aukera izango duzu: Idiazabal, Ronkal eta Iratiko gaztak.



ORDUTEGIAK.

2009ko Apirilaren 9tik (osteguna) Apirilaren 18ra (larunbata): 11:00-14:00 eta 16:30-20:00.
2009ko Apirilaren 19a (Igandea): 11:00-14:00.

SAGARDOTEGIAK.

Zure beharren arabera, Sagardoetxean sagardotegien inguruko informazio guztia emango zaizu.